

«XARIT ETA LAINO» (2)

12.- «BATZARREAN»

Goiz goiza zen eta hamar-hamabi bat ginen Anibalen guda dendaren azpian bilduta ginenok. Alde batean, Anibalen eskubian sei kartagotar buruzagiak: Dixor zaharra bere bizar zuri luzea zintzilik zuelarik, Hastar buruzagi ospetsua bere begi urduriak alde batetik bestera etengabeki mugituz, hamaika gatazketan garaile irten-dako Itsgir ausarta, Urnelt Kartagoberriko buruzagi jator eta noblea, bere ondoan beti hizketan nesken bihotzak eskuratuz, etsaien ezpatak menperatuz bezain trebea zen Ixtruk gudalburu trebe eta berritsua, eta honen segidan ni Xarit, Anibalen lugartenientea.



Danok zutituz, gure
ezpatak atera eta altxatu
egin genituen, gure
eztarrietatik erantzun
bera sortaraziz: Irabazi
ala hil! Gora Anibal!
Gora askatasuna!

Beste aldean eserita, herri elkartuen guda ordezkariak: Ollot auñamenditarren buruzagi erraldoi eta iletsua bere bildurgarrizko aizkora zorrotza gerrikoan ipinita agerian zuelarik, Mertor balear habailarien burua, Ikxor eta Milok itsasaldeko feniziarren gudalburuak eta beraien aldamenean nere andrea Laino euskaldunen printzesa eta Oiert menditar hauen buruzagi zahar bezain adoretzu eta argia.

Goiza ederra zen, ateri zegoen, ez zuen elurrik botatzen eta eguraldiaren aldetik epeltasun apala sumatzen zen. Herri elkartuen ikurriña eta ikurrez ornatuak zegoen

dendaren barruan ez zen ere gaizki egoten eta ahuntza eta ardi larruz gainean eserita geuden. Anibalek laster egin zigun hitza!

— Anai-arrebak, lagunak,... ongi etorriak nere dendara! Hots egin badizuet ez da, zuek suposatuko duzuen bezala, elurraz eta izotzaz hitzegiteko, ezta gure gaiso eta hildakoez oroitzeko,... Ipar Italiako lurraldeen hurbiltasunaz aritzeko baizik. Nere espioiek esan didatenez astebete barru, lehenengo italiar harenetatik barrena sartuko gara eta...!

Hauxe aditurik, zurrumurru ozena altzatu zen buruzagien artetik.

— Baina guk uste genuen Italia oraindik urruti samar zegoela!!!

— Ez, buruzagi nerek, Italia oso hurbil daukagu eta berarekin batera gudatea. Eta nahiz eta oraindik inpernu hotz honetan egon borrokarako gertu egon beharko dugu, irabazi nahi baldin badugu behintzat. Eta hortarako bildu zaituztet hemen, nerekin ehunezko sapai honen azpian, gure tropen prestasun zorrotza agindu nahi bait dizuet!

Denok zutituz, gure ezpatak atera eta altxatu egin genituen, gure ezterietatik erantzun bera sortaraziz: Honela izango da, irabazi ala hil!!!. Gora Anibal!!!. Gora askatasuna!!!

13.- «ITALIAR HARAN EPELETARUNTZ»

Anibalek lasaitu gintuen eta berriro esertzeko agindu zigun. Honelaxe eginda eta denon urduritasuna behin baretu ezkeru Anibal berriz mintzo hasi zitzaigun.

— Ene buruzagi jator eta adoretuak, bihotz bihotzez eskertzen dizuet nireganako azaltzen duzuen fideltasuna. Zuekin garaipena xiurra daukagu. Gure bildur egon daitezen erromatar koldarrak! Baina irabazteari bideak ipini behar zaizkio eta hortarako bildu zaituztet hemen nere inguruan. Laister egongo gara Italiako iparraldean eta bertan lehenengo erromatar guarnizioekin egingo dugu topo. Irabazteko edo galtzeko bidea lehenengo haran horietan urratu beharko dugu eta hortik aurrera jarraitzeko gauza ez bagara ibilaldi luze oso hau alfer alferrikakoa izango dugu.

Kontuan hartuz ibilaldi luze honetan gudaroste erdia galdu dugula, aurrez aurre egiten badugu topo ez dugu irabazterik izango, baina erromatarren menpean dauden beste italiar herriak gureganatzen ikasten badugu, Erromako etorkizunak ez du hegazti zauritu batenak baino gehiago balioko. Eta beraiekin hitzegitea da herri horiek gureganatzeko etorri zaidan burutazio onena, nere ustez hitzeginez ulertuko bait diogu elkarri. Baina beraiekin hitzegin ahal izateko, erromatarren aurka dabiltzan italiar buruzagiekin bilera bat antolatu beharko genuke, eta ahalezko bilera hau egia bilakatzeko, beraiengana norbait bidaltzea pentsatu dut, eta horregatik zuek zuen baietza eman ezkeru, Xarit eta beste lagun batzu bidaliko ditut.

Buruzagiak jeiki ziren berriro eta aho batez beren adostasuna adierazi zioten. Anibalek orduan Xariti eskua luzatuz, honela esan zion:

— Har itzazu zure gogoko hamar bat lagun eta jon zaitezte italiar herrietara beren buruzagiekin adiskidetasun eta elkartasunezko hitzarmena betetzera. Gu bitartean hemen egongo gara, zure berrien zain!


Laino zutitu zen eta Anibal gozo eta sendo begiratzuz, honelaxe esan zion:

— Jauna, laguna, utz nazazu nere senarrarekin joaten! Soberan dakizu euskal emakumeak gizonak bezain gerlari onak garela eta badakizu arront nere besoa ez dela inolaz ere bildurtzen ezpata erabiltzeko orduan!

Anibal hasieran piska bat harriturik gelditu zen, baina segituan jakin izan zuen bere aurrean zeukan andrearen adore eta sasoiaren neurtzen, eta honela azaldu zuen erantzun labur eta zehatz batez.

— Joan zaitezke zure senarrarekin batera eta lehenbaitlehen etorri danok itxaro dugun albiste ona ekarriz!

Egun bereko arratsaldean hamabi zaldun abiatu ginen Italiako iparraldeko haran epeletarantz. Laino eta biok, eta hamar gerlari gazte. Bost euskaldun Haritz gaztea buru zutelarik eta bost kartagotar nere lagun Anekronen agindupean. Etorkizuna gure zain zegoen, eta kartagotar kanpamendutik itxaropenezko begi grinatsuek ixil ixilik agurtu ziguten.



Egun bereko
arratsaldean
hamabi zaldun
abiatu ginen
Italiako
iparraldeko
hara
epeletarantz.
Etorkizuna gure
zain zegoen.


14.- «TIGREMEAREN ZULOAN»

Bi hilabete ziren Anibal utzi genuela eta italiar herrietako buruzagi gehienekin hitzeginik geuden iadanik, hitzeginik eta baita gure erasoaldiaren mementuan erromatarren aurka matxinatzeko hitza emana ere. Italiar herriak asperturik zeuden erromatar sandaliaren menpean, asperturik eta altxatzeko pronto.

Baina oraindik torgomanoen buruekin hitzegiteko beharrean ginen, torgomanoek oso indar haundikoa ziren eta beste herriengan zeukaten eraginarengatik, behar beharrezkoa zen bere laguntza lortzea. Non gogoa han zangoa! Berehala torgomanoen herrixkarantz abiatu bait ginen.

Ziotenez, torgomanoen burua printzesa gazte eta ederra zen, baina bere edertasuna bakar bakarrik parekatu zitekeen bere ankerkeriarekin. Hamaika ixtorio aditzen ziren bere kapritxu eta egindakoez. Ederra eta ankerra, kapritxuz eta diruz josita, haundikeria eta diruzalekeriaz jantzita,... honela omen zen Heresnes, torgomanoen printzesa gaztea.

Torgomanoen herrixkara iritsi bezain laister, Xaritek Anibal Barka («Tximista») haundiaren izenean printzesarekin elkar hizketaren bat eskatu zuen, baita printzesak



Lasai ederrean
Anibalek
pergaminoan
idatzitakoa
irakurri nion,
baina
Heresnesen
mingainetik ez
zen hitzik atera.

korrika asko onartu ere. Bitartean Laino, Anekron, Haritz eta beste gizonak, iturri baten ondoan gelditu ziren atsedenaldia hartuz eta zaldiei edaten emanaz.

Errege Gelan sartzerakoan, liluraturik gelditu nintzen ez bait nuen holako luxorik ikustea espero ezta Erroma beran ere. Gela zabal zabala zen, solua marmolez eginda eta urrez eta zilarrez estalitako hormak. Bi aldeetan zutabe ilarak uztaiak edo arkuak eginez. Arkupeetan torgomanoen buruzagi, aitonseme eta bestelako kortesauak. Aurreko aldean, erdi erdian, jainkosa dizdiratsua balitz bezala, zoragarritzko bitxiez estalirik eta urrezko errege-aulkian eserita, Heresnes, torgomanoen printzesa txit boteretsua, bere bi aldeetan zutik, bere sei aholkulari nagusiak zituelarik.

—Belaunika zaitetz printzesaren aurrean arrotza! —esan zion printzesaren eskubian zegoen aholkulari batek—. Belaunika zaitetz torgomanoen printzesa haundiaren aurrean! —errepikatu zion—.

— Anibal Barkaren ordezkariak ez dira inoiz arrotz agintarien aurrean belaunikatzen, eta gutxiago oraindik bere gutun garrantzitsuren bat ekartzen dutenean! —erantzun nuen hausardi haundiaz eta printzesaren begirada tigretsua begibistatik galdu gabe—.

Oso une latzak izan ziren haiek, zenbait buruzagik ezpata ateratzeko ahalegina egin zuten kanpotarraren hausardia zigortu nahian, baina zorionez gauza ez zen handik igaro, printzesa berak moztu bait zuen bere diplomazia haundiaren seinalea azalduz.

— Geldi danak!, utz ezazue kartagotarra hitzegiten, ea zeintzu diren dakarzkigun Anibalen albiste famatu horiek! Agian ez zaigu horren buruzagi haundiarekin aserretzea komeni eta!

Irakurri nion aho ozenki, lasai ederrean, Anibalek pergaminoan idatzitakoa,... Erromatarren aurkako laguntza eskaerara iristerakoan, zurrumuruak ugaritu ziren han bilduta zeudenen artean, baina printzesaren mingainatik ez zen hitzik atera, eta bere begi urdin ederrak ez ziren ia ia mugitu ere egin. Bukatzerakoan, Heresnes jeikiz, honelaxe esan zuen:

— Arrotza, ezin dizut erantzun azkar bat eman, hortarako nere guda kontseiluarekin bildu behar bait dut, baina astebete barru gure erabakiaren berri izango duzula agintzen dizut. Bitartean atsegin haundia izango nuke gaur gauean azalduko bazina nere jau-regian zure ohorez antolatuko dudan jaialdi haundiaz disfrutatzeko. —eta bere zerbitzariak begiratuz—.

Zuek presta itzazue gure jauregiko zenbait logela printze arrotz hau eta berarekin etorri diren lagun guztientzat!

— gero niregana burua itzuliz— Nere zerbitzarien eskutan uzten zaituztet, ez zaizue ezer faltako! Gero arte!


Mugitu zen errege-aulkitik eta abiatu zen zerbitzari belaunikatuen artetik igaroz, bere gela alderantz.

15.- «HERESNES»

Gau itxia zen eta torgomanoen zeruan izarririk ez zegoen. Heresnesen jauregian jai handia zen Anibalen gutunlariaren ohoretan. Printzesak usadioari jarraituz, agindua zuen zaindarien artean litro erdi bana ardo partitzea, eta alaitasuna nonahi nabari zitekeen. Bitartean gela nagusian jaia aurrera zihoan. Erdi erdian jarrita eskenarioa eta almohada erosoetan eserita edo etzanda gonbidatuak. Izkina garai batean printzesa eta bere buruzagi nagusiak, eta ni bere eskubian eserita.

Ez zen deus falta, jaki guariak, Italiako ardoak, hegali gozoak,... eta gonbidatuek eskenarioan danetatik ikus zezaketen: kelta borrokalariak, beren biziak jokatzuz, neska dantzariak beren gorputz ederrak bilutzik agertuz, mutil gazte gazteak beren atributuak harro harro azalduz, basapizti ezezagunak, hegazti exotikoak,...

Gau luzea izan zen, lizunkeriez betetako gau luzea. Gonbidatu asko eta asko ardoak eta plazerrek eraginda lo zerraldo zeuden nonahi eta nolana etzanda. Heresnes oso pozik zegoen, ez zen ixiltzen, ardoa eta pattarrak gusto gustokoak zituen eta kopa bat hustu ondoren segituan betetzen zuen hurrengoia. Eder ederra zen, gorputz eder eta dotorekoa, guztiz egokia, ile beltzaranekoa, begi urdinak, aurpegi txol polita,... baina bere begiradan haundikeriaren faltsukeria nabarmen zegoen.



Halako batean, Heresnesek eskutik hartu eta gela hura lagaz, bere logela batetara eraman ninduen.

Halako batean, Heresnesek eskutik hartu eta gela hura lagaz, bere logela batetara eraman ninduen. Zuk eta biok hitzegin beharra daukagu!!! —esan zidan eztiki belarrian—. Gelan sartu eta bexarkada bero batez harrapatu, bere ezpain lizunak nere masailetatik bero bero zirritzatzen zituen bitartean. Bere esku urduriek nire gorputza ferekatzen zuten etengabeki. Geldirik nengoen Heresnesek pailakatzen zidan bitartean, guztiz harriturik aurkitzen bait nintzen. Zer egin egoera hartan?, nola ihes egin diplomatikoki nere misioa arriskuan jarri gabe?

Anibaleren ordezkaria nintzen eta banuen aginduren bat printzesa harekin betetzeko, baina dana hori... Bai printzesa polita zen, guztiz desiragarria, baina ez zegoen nere nahiean horrela bukatzea. Bapatean astindu nintzen bortizki Heresnes niregandik aldenduz.

— Ez hauxe ez, hauxe ez da gu bion artean hitzegin beharra daukagun asuntua, sentitzen dut Heresnes baina...

— Bai kartagotarra, ulertzen dizut soberan. Ez duzu nirekin nahi,... nahikoa bait duzu laguntzen zaituen andre euskaldun horrekin!

— Laino nere emaztea da printzesa!

— Alde berarekin bada, Kartagoko urdea!, utz nazazu pake santuan! Alde gela hontatik!

Hauxe esaterakoan, Heresnesek zutabetxo baten gainean zegoen pitxar ederra hartu zuen eta bere indar guztiz bota egin zidan. Apartatu nintzen eta pitxarrak nire atzeko hormaren kontra jo zuen zarata haundia sortaraziz eta hamaika puxka txikitant hautsiz. Errespetuz agurtu nuen eta gorputza itzuliz nere logelarentz abiatu nintzen printzesa bere haserrealdian utziz. Kanpotik aditu ahal izan nituen bere amorrutako eta pattarrez bustitako oihuak:

— Orain arte ez dit inork holako mezpretxurik egin. Mendekatuko naiz urde kartagotarra!, ez pentsa gauzak horrela geldituko direnik!

16.- «HERESNESEN ERANTZUNA»

Goiz goizean esnatu ginen Laino eta biok. Lainoren edertasunak Heresnesena eta gau gauean gertatutakoa zekarzkidan burura, baina Lainoren begietan ikus nezaken zeru urdinak, itsas bareak... ez zuten inolako antzarik Heresnesen begietan azaltzen zen mundu okerra, ekaitz tximistatsurekin. Batena inozentziaz, alaitasunaz eta bizitzeko grinaz josirik, bestearena berriz, asperkeria, lizunkeria, eta haundikeriaren asegabeko gosez beterik. Nola maite nezaken Heresnes Laino eza gutuz?, nola maitatu ozpina ardoa probatuz gero? Ezinezkoa!

Egunak pasatzen ziren bata bestearen atzetik, eta torgomanoen printzesaren erantzuna ez zen inoiz iristen. Nik, bitan edo hirutan eskatu nuen berarekin hitzegitea, baina alperrik, bakar bakarrik itxoiteko eta itxoiteko erantzuten bait zidaten. Zortzi ilargi pasata ziren, Heresnesek berriro bere jauregira deitu zidanerako. Berehala errege gelan ipini nintzen printzesaren aurrean. Apal apala zegoen eta orduko haserrealdia ahazturik zeukala zirudien.

— Agur kartagotarra, bihotzez itxaro dut gure arteko egonaldia ez zaizula desatsegina izan! Barkatuko didazu, erantzuteko hainbeste egunetan luzatzea baina ezinezkoa egin zaigu orain arte batzarre orokorrean biltzea. Zure laguntza eskaeraren baietza oso osoa izan da, ez bait da aurkako hitzik egon; ondorioz jakin dezan Anibalek, berak esandako momentuan altxatuko garela. Zuk eramaiozu albistea lehenbaitlehen, gu ere lehenbaitlehen mugi gaitezen. Har ezazu nire zaldi azkarrena eta joan zaitetz Anibalengana berria emanetz. Kontu haundia eraman, erromatarrak Anibalen presentziaz oharturik bait daude. Oso bidai arriskutsua izango da, baina behar beharrezkoa Anibal gure laguntzaren gainean ipini nahi baldin badugu. Bitartean eta ez baduzu zure emaztea holako arriskupean jarri nahi, utz dezakezu hemen, nere jauregian, zure zain dagoen bitartean ez bait zaio ezer faltako!

Joan zaitetz Anibalengana eta emaiozu lehenbaitlehen gure baietza!!!



Lainok, saminetik indarra atereaz, bere lepotik zintzilik zeraman zilarrezko lauburua eman zidan nere lepoan jar nezan, zoriona ekarriko zidala aginduz.

Eta hauxe esanaz altxatu eta desagertu egin zen.

Poz-pozik nengoen, erdi eroturik. Lasterka irten nintzen eta Laino eta beste lagunengana abiatu nintzen berria ematera.


Laino trixtetu zen pixka bat nirekin ezin zuela joan jakin zue-nean, baina segituan ulertu zuen ez zela nire nahia, egoeraren beharra baizik, eta saminetik indarra atereaz, bere lepotik zintzilik zeraman zilarrezko euskal lauburua eman zidan nere lepoan jar nezan zoriona ekarriko zidala aginduz.

Hurrengo egunean atera ginen goiz goizean Anekron, bost gerlari kartagotar eta ni, Haritz eta bost gerlari euskaldunak Laino zaintzeko arduraz utzi bait nintzen. Torgomanoen ate nagusitik irteterakoan, atzeko alderantz begiratu nuen eta han, harresi gainean agurtuz, Laino ikusi ahal izan nuen, trixte baina sendo, beti bezain ederra, eguzkia baino ederrago. Bere eskuaren bidez muxu bat bidali zidan eta baita nik erantzun ere. Agur Laino, laster arte! Zuk emandako lauburuak bidean lagun nazan!

17.- «ERROMAKO BIDEAN»

Ederki kostata iritsi nintzen Anibalengana, baina eramaten nion albiste onak ondo merezi zuen holako arriskuak igarotzea. Huraxe zen berri ona, danon itxaropenean zegoena! Herri italikoak gure alde zeuden borrokatzeko prest, erromatarrei aurre egiteko gertu. Kartagotar gudarostea oso murrizturik zegoen 50.000 lagunetatik 20.000 lagunetara, eta zalditeriaren aldetik 9.000-etatik 6.000-etara jeitsita bait zen, mendietan zeharkako ibilaldi luze eta izugarri gogorra izan bait zen eta gaitzek eta elur jausiek eraman izan bait zuten heriotzera gudaroste erdia.

Guda elefante gehienak akaturik zeuden. Baina italiar herriek eskeintzen zuten laguntzak indar berriak ematen zizkien. Lehenengo gatazkak Po ibaiaren aldeko haranetan izan ziren, Tesinon eta Trebbian hain zuzen, eta biak oso garaipen haundiak izan ziren kartagotarrentzat. Garaipen hauek ikusirik, italiar iparraldeko kelta herriak guregana pasa ziren. Oso egun haundiek izan ziren, eta zeruetako izarrek gure alde argitzen zuten.



Ezin nion
nigarrari kontu,
malkoak bi
begietatik bait
zerizkidan nere
masailak
etsipenaren
epeltasunez
bustiz.

Penintsularen erdialdean, Cannasen izan zen hurrengo borrokaldia, gogor gogorra suertatu zena. Bertan erromatarrek 70.000 gurlari galdu zituzten hildako, zauritu eta presoan artean. Gure hatzaparretan erromatar estatu nagusiko hogeitabederatzi ofizial erori zirelarik. Gure ikurrinak aidean zebiltzan harro harro berriro garaile. Erromako bidea zabalik zegoen! Gure zaldietatik hiriburuko harresietan erromatarren ikarazko aurpegiak ikus genitzaken. Ikaraturik zeuden, etsipenak jota,... eta Erromako kaleetan «ANIBAL ANTE PORTAS» (Anibal ate aurrean!) izu oihiak errepikatzen ziren behin eta berriro.

Italiako hegoaldetik berri onak, Kapua aberatsa matxinatua zegoen erromatar agintearen aurka. Danak zeuden gurekin, danak matxinaturik zapaltzailearen aurka, danak..., baina torgomanoen aldetik berririk ez! Beste herrietako buruzagiengandik jakin genuenez, torgomanoek hegoaldean ari ziren erromatarrekin elkartuta, gudaroste indartsua antolatuz.

— Traizioa, maltzurkeria!!! Heresnesek hitza jan du! Azpisuge alena! Baina eta Laino?, zer egin duzue Lainorekin?

Uste nuen erotuko nintzela, ez nekien zer egin.

— Baina nola sinets ahal izan nuen printzesa maltzur haren hitzaz?, orduan bai eroa nengoela! Nola fida ahal izan nintzen narrazti pozoitsu haren esanaz?, nola ???

Ezin nion nigarrari kontu, malkoak bi begietatik bait zerizkidan nere masailak etsipenaren epeltasunez bustiz.

— Laino, nere Laino maitea tigresa anker haren hatzaparretan!!! Bizirik ote? Eta halaxe bazen, nola libra???

Horren bildur nengoen eta nire dendako ohe gaineko larru artean murgildu nuen nire burua, samindurik, etsiturik, itsuturik, eroturik,... pentsatzeko, bizitzeko eta sentitzeko bat are gogo gaberik.

18.- «ERROMATAR GUDAROSTE BERRIA»

Erroma oraindik ez zegoen inguraturik, baina beharrik ere ez zegoen, Erroma ez bait zegoen erresistitzeko prestaturik. Bertako goarnizioa urri urria zen, erromatar tropak aurreko borrokaldietan suntsiturik, bait zeuden, ..., borroka zuzentzeko buruzagi onik ere ez zeukaten,... eta hiri eternalako kaleetan bildurra zebilen jaun eta jabe. Egunero bere ate ugarietatik jende mordoxka irteten zen ihesari ekinez; Merkatariak, aitonsemeak, aberatsak,... hiria uzten zuten bere amaiera iragarritz.


Hegoaldean, torgomanoen laguntzaz, antolatzen ari zen gudaroste berria zen erromatarren itxaropena bakarra!

Anibalek, gudaroste berriaren albistea izan zuen bezain laister, bere tropak bidali zituen erromatarren azken indarra suntsitzeko asmoz. Nik, beraien artean Heresnes eta bere estatu nagusia zeudela jakin nuenean, berehala alistatu nintzen. Bi egun barru bi gudarosteak aurrez aurre zeuden akanpaturik, bion artean errekatxo bat mugatzat genuelarik. Egunak pasatzen ziren eta ez bat eta ez besteak ez zion gudateari hasiera ematen.

Lasaitasun hauskor hartaz baliatuz, bi gutunlari bidali nituen gudaroste etsaiarengana, Heresnes printzesari zuzendutako gutun sekretua eramaten zutelarik. Bertan Lainoren egoeraren berri eskatzen nion Heresnesi. Goizean abiatu ziren bi gutunlariak eta eguerdirako itzulita zeuden zaldiren gainean geziz jositako bururik gabeko gutunlari biren gorpuak, eta bietako baten bizkarrean sastegai zorrotz batez jositako Heresnesek idatzitako erantzun anker bezain laburra:

«XARIT, LAINO BIZI DA, LAISTER IZANGO DUZU BERAREN BERRI»
—HERESNES PRINTZESA—

Torgomanoen printzesaren mugagabeko krudelkeria ikusiz ez nuen itxaropena haundirik gorde, baina eskutitzak zioenez Laino bizi zen oraindik, baina non? eta nola? Auskalo! Eta bizi bazen noiz arte???



Goizean abiatu
ziren bi
gutunlariak eta
eguerdirako
itzulita zeuden
zaldiren gainean
geziz jostiako
bururik gabeko
gutunlari biren
gorpuak;
Bietako baten
gainean idazki
bat ikus
zitekeen.

19.- «AGUR LAINO!»

Gau berean izan nuen Heresnesek manuskritoan prometitzen zidan berria. Gau erdia zen eta iluntasunez jantzita erori zen gure kanpamenduan etsaiek katapultaz bidalitako zorro bitxia. Irikitzerakoan jakin genuen zer zen. Ezin genuen sinistu holakoetaraino iritsi zitekeen andre haren bihozgabekeria. Opari trajikoa, odoldua,... Lainoren burua bait zen, Lainoren buru ederra odolez estalirik eta bera-
rekin batera Heresnesen eskutik idatzitako gutuna:

«Xarit, behin egin zenidan parre, behin egin zenidan iseka eskeintzen nizuen laguntasunaz baliatuz. Nahiago izan zenuen andre euskaldun honen maitasuna nik eskeintzen nizuna baino, eta nik, torgomanoen printzesa haundiak, ezin nuen holako mezprezurik barkatu. Ederki urratu zenidan bihotza zure harrokeriaz eta orain opari polit honen bitartez samin bera itxaro egiten dizut.

Tori, hemen daukazu zure maitalearen burua bere edertasuna ez dezazun ahantzi. On dagizula! Bere gorputzari dagokionez, sentitzen dut esatea ezin dizudala ezer bidali, nire zakur beltzak ongi asetu bait dira bere kontura!


Agur Xarit, betirarte!»

Heresnes, torgomanoen printzesa haundia.-

— Laino gaixoa, honeraino etorri zinen mendeku bila, askatasunaren egun haundia ikusteko grinaz beterik. Gaur dana bukatu da biontzat, zuk betirako utzi bait nauzu! Hori bai, euria egiten duenean zerura begiratzuz zutaz eta zuk hainbestetan kontatutako zure sinismenek dioten berpizkundeaz gogoratuko naiz. Agian, nork daki?, egunaren batean euriaren bidez berriro etorriko zara Amalurren kolkora. Eta loretxo bat ikusterakoan agian zu zarela pentsatuko dut, edo bestela agian itsaso gainean alaiki hegaka dabilen kaio zuria, edo zuhaitzaren kimu berria, edo nire aurrean dantzan mugitzen den margo anitzetako pinpilinpauxa polit kulunkaria.


Beti egongo zara nire gogoan, eta beti oroituko zaitut Euskal Herrian ezagutu zintudan bezain gazte, lirain, eder, panpoxa... Zu bazoaz Ilargi alderantz ortzadarraren bideari jarraituz, bazoaz ni hemen utzita. Agur Laino, agur laztana!, beti sentituko dut nire larruan zure musu goxoen pailaka, zure biziaren berotasuna,... eta nire barruan zure begiraden xarma majikoa, zure alaitasunaren soinu kantaria. Agur Laino, bizi zaitetz betirako lainoaren edertasunean, izadiaren kolkoan! Agur Laino, agur!!!

Loretxo bat ikusterakoan agian zu zarela pentsatuko dut, edo bestela agian itsaso gainean alaiki hegaka dabilen kaio zuria.



20.- «HERESNESEN BUKAERA»

Egunguentiaren lehenengo ordutan eman nuen erreka igarotzeko agindua, lehendabiziz zalditeria eta atzetik oinezkoak. Etsaia zelatan zegoen eta gazi hodei sendo batez eman ziguten ongi etorria; guretatik asko eta asko erori ziren ur hotz haietan geziek jota. Hala eta guztiz ere, gure gerlariak adoreki borrokatzen zuten eta laister beste ertzean zeuden, aurrez aurre, gorputzez gorputzeko borrokari hasiera emanaz.



Baina Heresnesek, bere setazko jazki tartetik sastagai zorrotz batetara zuen eta mugimendu bortitz batez bihotzeraino sartu zuen.

Erromatar gerlariak adoreki borrokatzen zuten, eta ez zuten pausorik ere atzeratzen. Beren elkartuak, torgomanoak borrokalari trebeak ziren ere baino askoz basatiago eta ankerragoak. Bi ordu geroxeago, gorpu eta zauritu odolduen artean bi gudarostetako gerlariak sendo eta pizkor ekiten zioten borrokari oraindik. Zaldian zalaparta eta hiltzorian zeudenen karraxiak nahastu egiten ziren odolezko putzu haundi hartan, eta hauts hodei haundi batek borrokaldiaren eremu osoa estaltzen zuen.

Euskaldunak, beren aizkorak arinki mugituz, hildako franko sortzen zuten etsaien artean, eta denbora luze egin ezkeretsai lerro guztiak igarotzea lortu ahal izan zuten. Ni beraiekin abiatu nintzen eta borrokaldiak errekaaren ertzetan segitzen zuen bitartean, Oiart, ni eta berrehun bat euskaldun etsaien kanpamenduan sartu ginen.

Han ez zegoen defentsa haundirik, kanpamendua erdi hutsa bait zegoen. Kanpa-

menduko izkina batean torgomanoen dendak zeudela konturatuz, haruntz jo genuen. Erdi erdian Heresnesen denda zegoen. Nahiz eta denda gordetzen zeuden larehun bat torgomanoek aurre adoretsua eman, ezin izan zuten gure erasoaldia moztu eta ihesari ekin behar izan zioten. Dendak sutan zeuden, lurra odoldua,... eta su eta garrezko infernu horretako erdian Heresnes zutik, zuri zuria,... bildurrez baina harro, kezkatuik baina adorea gordez,... Bere inguruan zeuden bizirik gelditzen zitzaizkion azken torgomanoak, beren printzesa defendituz. Hantxe ari ginela, Oiert zerraldo eroriz, lepoa gezi batez zeharkatuik, ikusi nuen. Amorruez, amorrazioz beterik, indar berriz ekin nion borrokari.

Laister bidea garbitu genuen; Heresnes bakar bakarrik zegoen. Geldi erazi nituen nire gizonak eta zalditik jeitsiz berarengana joan nintzen preso hartu nahiean. Baina berak, bere setazko jazki tartetik sastagai zorrotz bat atera zuen eta mugimendu bortitz batez bihotzeraino sartu zuen bere azken hitzak ozenki esaten zituelarik:

— Kartagotar zerria ikasi nola hiltzen den torgomanoen printzesa...!!!

Ez zuen gehiago esateko astirik izan, zerraldo erori bait zen lurrera. Euskaldun gerlari batek zartako zehatz batez burua moztu zion eta lantza luze baten puntan sartuik altxatu zuen garaipen irrintzia jaurtikiz. Euskaldunen mendeku ordua zen. Nik atzeko alderantz okertu nuen begirada eta erromatarren porrotaz ohartuik ezpata gorde nuen. Nonnahi herioa, nonnahi odola, huraxe zen gudatearen arrasto latza!

21.- «EUSKALDUNEN JOATEA»

Guda zelaia gorpuz josita gelditu zen eta erreka odolez tintaturik. Lehenengo putreak azaltzen hasita zeuden jaki merke eta ugariak deituta. Gau hartan ez zuten afari makala!!!

Borrokaldiak ia egun osoa iraun izan zuen eta iadanik ilunabarra zen gure kanpamendura itzuli ginenerako. Kanpamendua suzirik argituriz zegoen eta beren itzaletan gure gerlariak beren zauriak sendatu egiten zituzten. Danetatik ikus zitekeen: besogabeak, begibakarrak, hankamotzak,... huraxe izan bait zen gure garaipenaren prezio mingotsa!!!

Hilzorian zeudenen karraxiak izugarriak ziren eta dardaraz jartzen ninduten,... hura ikaragarria zen!

Laister nik bidalitako gutunlariak, infernu hura utziz, Anibalengana abiatu ziren habaila bizian.

Astebete ederki pasata zegoen eta berriro Anibalen kanpamenduan geunden. Erromaren erortzea egun bakar batzuetako gauza zelarik, gure gerlariak pozez beterik zeuden, baita italiar herri elkartuak ere. Anibalek bide guztiak zabalduta zituen, ez zen egun luzerik falta negua bukatzeko eta elurrak eta izotzak amaitu bezain pronto Erroma suntsitzea zen gure asmoa. Garaipena gure esku zegoen! Baina euskaldunak ez zeuden oso pozik, beren buruzagiak galdurik bait zituzten eta horrela jarraitzeari ez bait zioten sentidurik ikusten. Horrexegaitik Haritz buruzagi gazteak baimena eskatu zion Anibali Euskal Herrira itzuli ahal izateko Erroma suntsitu aurretik.

Euskaldunen joateak pena ederra eman zigun, baina beren eskaera guztiz ulerkorra egiten zitzaigunez gero, Anibalek, gure esker beroenek eta erromatarrei kendutako zenbait hondasunen zatiren bat emanaz, beren sorterrirantz abiatzeko eskakizuna onartu egin zien.


— Joan zaitzte pakean zuen lurraldeetara euskaldun adoretu eta kementsuak. Asko zor dizuegu eta horren hurbil dagoen garaipen egunean zuetaz oroitu ko gara. Joan zaitzte zuen herri xarmantera eta eramanez ezazue zuekin urrutiko eremu eder horietara askatasunaren irrintzia. Erroma erori bait da betirako, eta gaurtik aurrera

askatasunak beteko bait du legez dagokion lekua. Agur euskaldunak, beti gogoratuko zaituztegu, bai zuek, gerlari bulartsuak eta baita askatasunaren bidean eroritako lagunak: Oiert zahar bezain adoretua, eta Laino printzesa eder bezain sendoa. Bihoakie gure oroimena!!!

Hurrengo egunsentian euskaldunak martxan ipini ziren beren lurraldeetarantz. Joan aurretik, Haritzek nire Laino maitearen burua gordetzen zuen altzairuzko kaxa hartu eta eramanez zuen berarekin, Lainoren gogoa ere Euskal Herriko amalurraren kolkora itzul zedin, geroxeago Ortzadarreko bide margotsua hartuz Ilargira iritsi eta euriaren bitartez berriro beste izaki batez berharagiturik berpiztu zedin. Horixe da behintzat niri Lainok erakutsitako euskal sinismenak diotena.

Haritz kaxa eman aurretik, muxu bat eman nion agurraren gisan. Agur maitea, agur lastana, itzul hadi Euskal Herrira, itzul hadi zure arbasoen aberrira!!! Zorigaitzez ezin izango dun garaipenaren eguna ikusi, baina hegaztiak eramango dinat berria, eta neronek beti gordeko haut nire bihotzean. Agur nire euskaldun polita, agur nire emazte lastana, agur betiko!


Azken gerlari euskaldunak lurertzean galdu zireneko hodei gorriak zabaltzen hasita zeuden zeruan, etorkizuna iragartzen ziguten odolezko hodei gorri gorriak.



Kaxa eman aurretik, muxu bat eman nion agurraren gisan. Agur maitea, agur lastana! Itzul hadi zure arbasoen aberrira!

22.- «LAINO GOGOAN»

Negua bazihoan, Erroma gertu genuen, gure gerlariak berriro borrokari ekiteko prest zeuden, Anibal borrokaren kanpaina berria zehatz zehazki ari zen prestatzen. Egun batzuetako gauza zen, azken izerdiak, azken saiatzeak, azken aha-
leginak... eta gero garaipena, askatasuna.



Horren itxarotutako une haietan, nik ezin nuen Lainoren oroimena nere gogotik kendu. Ezin eta ez nahi. Bera beti nere gogoan zegoen, eta berak ematen zizkidan aurrera jarraitzeko hainbeste behar nituen indarrak.

Bildurra eta ikara zen nagusi erromatarren artean, une haietan ez bait zuten txanpon bat ere emango beren lepoengatik. Erroma itxi itxirik zegoen, bukaeraren zain balego bezala. Bere kaleetan ez zen alaitasunik inondik ere sumatzen, Erroma hiltzera kondenaturik zegoen beren ustez, baina beren larruak garesti saltzeko prest zeuden bere biztanleak. Erromatarrek ez zuten beren hiria musutruk eman nahi. Hala ere ez zuten irabazteko inolako esperantzarik.

Horren itxarotutako une haietan, nik ezin nuen Lainoren oroimena nire gogotik kendu. Ezin eta ez nahi. Bera beti nire gogoan zegoen, beti nire ondoan, eta berak

Etorkizuna itxaropentsua zen gure herriarena eta gurea bezain zorionezkoa gurekin batera borrokatzen ari ziren herri italikoenak. Akabo betiko gerra, gorrotoa eta zanpake-ta, akabo erromatar zanpatzaile gorrotagariak! Akabo morrointza betiko!

Gerlariak pozik zeuden eta beren alaitasunak indarberritzen gintuen beren buruzagiok borrokaldi berriari hasiera emateko zorian geunden une haietan.

Erromatarrek berriz arras goibeldurik zeuden, korrika eta laisterka ari ziren Erromako bidean zeuden azken herrixkak eta hiriak gotortzen,... harresiak eraikiz, gotorlekuak sortuz, gerlari gazte gazteak armetan trebe-

ematen zizkidan aurrera jarraitzeko hainbeste behar izaten nituen indarrak. Nire be-
larietan bere ahots goxoak etengabeki errepikatzen bait zizkidan hitz berberak:

«Aurrera, aurrera Xarit, askatasun eguna
laister argituko bait da!!!»

23.- «ETSIPENA BERRIRO»

Gerra hau ez al da sekula bukatuko? —galde egiten nion askotan neure
buruari—.

— Guk irabazterakoan —erantzuten nion korrika eta segidan—, garaipenak aska-
tasuna eta pakea ekarriko dizkigu, horrexegaitik behar dugu irabazi. Baina behin
irabazi ezkerro, Erroma suntsitu ezkerro, askatasuna eta pakea segurtaturik egongo al
dira? Ez ote dira zanpatzaile berriak sortuko? Bai? ez? Eta horrela gertatzen baldin
bada, zertarako borrokatu?, zertarako hainbeste odola alper alperrik isuri?

Eta bestaldetik galtzen baldin badugu, erromatarrek beti bezain garaile, beti bezain
zanpatzaile jarraituko dute! Eta berriz odola, herioa eta morrointza! Orduan zer egin?
Zein da benetako bidea?

— Zertarako irabazi, nik gehien maite ditudan lagunak bidean hilik suertatzen baldin
badira?... Laino, Astiron, Oiert...? Zertarako???


Zertarako irabazi ez bait dago zer
irabazterik, edo agian ba al dago???
Zertarako?, zergaitik?? —etengabe-
ko galderak nahasten ziren nire bu-
ruan—.

— Baina nahiz eta etsiturik egon,
nahiz eta lur jota gelditu, azken arnasa
galdu arte borrokatu behar da, Laino
eta beste lagunen ametsa bete arte,
askatasuna lortu arte, etsaia guztiz
suntsitu arteraino!!!

Esku tartean neukan Lainok opari-
tutako zilarrezko lauburuak aurrera
segitzeko gogoa, irabazteko grina,...
sortarazten zizkidan.


— Bai Laino, askatasuna lortu ar-
teraino!!!

Esku tartean neukan Lainok oparitutako
zilarrezko lauburuak aurrera segitzeko gogoa,
irabazteko grina,... sortarazten zizkion.



24.- «ERROMA AURREAN»

Negua bukatu berria zegoen eta gure gerlariak indarberriturik zeuden, azken zartada emateko prest. Italiako hiri gehienak gure eskupean genituen, Erromak ez zuen zer egite haundirik, dan-dana galduta bait zuen, laister historia berak ahaztuko zuen bere izena betirako, eta bere biztanleek ondo zekiten bere azken orduak ari zirela bizitzen.



Negua bukatu berria zegoen eta gure gerlariak indarberriturik zeuden, azken zartada emateko prest.

Erroma aurre aurrean genuen, hauskorra, apala,... edozein momentuan erortzeko zain, orein motela otso azkarraren hatzaparretan erortzen den bezalaxe. Gure geziak maiz mozten zuten aidea Tiber ibai ondoko hiriaren lehenengo kaleetan erortzeko. Hura zen gure seinalea, gure presentziaren lekukoa! Beraiek berriz, ez ziguten inoiz erantzuten, azken erasoaldiaren zain zeudenez armak alperrik gastatu nahiko ez balituzkete bezala.

Kartagotik bidalitako tropa iritsi bezain laster hasiko zen benetako erasoaldia, eta huraxe izango zen erromatar zitalkeriaren behin betiko horren itxarotutako amaiera.

Gu zain geunden, eta baita beraiek ere!!!

Hala ere ez zuten amorerik ematen eta beren buruak makurtu aurretik nahiago zuten beren etxe hondakinen artean hil, erromatar harrokeria beraiekin batera lurperatuz.

Gure gerlariak pizkor eta gogor ari ziren, baina zorigaitzez egunetik egunera gutxiago ginen, eta horrela jarraitzekotan edozein unetan garaile izatetik galtzaile izatera igaro gintezkeen. Anibalek aspaldi zeukan laguntza eskatuta, eta uste genuenez laister irtengo zen Kartagotik gudaroste haundi bat guri laguntzeko. Horri eskerrak emango genuke azken kolpea, horri eskerrak bukatuko genuke betirako Erromako harrokeriarekin. Horixe zen gure ametsa, horixe zen gure itxaropena!

25.- «XARIT KONTU KONTARI»

Erroma gure aurrean genuen, erromatarrek akabaturik ziruditen, baina gure zoritxarrerako ez zen horrela gertatu. Gure gudarosteak, negua italiar hirietan igaro ezkerro, luxoa eta bizitza onak jota, bere aurreko borrokarako grina eta kemena galdu zituen. Bestaldetik, Kartagotik itxaro genuen laguntza ez zitzaigun iristen, Anibalen aurkako aitonseme kartagotarrek ukatu egin bait zioten. Azkenez eta denbora luze pasata bakar bakarrik lau mila gerlari eta berrogeiren bat guda elefante bidali zizkiguten.

Bitartean erromatar agintariek Escipion anaien agindupeko gudaroste haundia bidali zuten Hispania aldera, bertako kolonia aberatsa kartagotarrei kendu nahiean. Egoera txarraz jabeturik, Anibalek elkertasunezko hitzarmena sinatu zuen Makedoniarekin, baina ez zitzaion ezertarako balio izan, erromatarrek Makedoniaren aurkako greko hirian elkarte bat sortu bait zuen. Sizilian, Martzelo erromatar buruzagiak, kartagotarren elkartua zen Sirakusa izeneko hiria suntsitu zuen. Hispanian egoera ezin txarragoa zen, Anibalen anaia zen Asdrubal Barkak ezin izan bait zuen erromatarren erasoaldia gelditu, eta bizirik geratu izan zitzaizkion gerlariekin Italiarantz abiatu zen Anibalengana iritsi nahiean, baina Alpe mendietan erromatarrekin egin zuen topo eta bertan galdu zituen gatazka eta bizitza bera.

Publio Kornelio Escipion, erromatarren jeneral berriak, Afrikara eraman zituen bere tropak, Kartagoren hesitzeari hasiera emanaz. Kartagotarrek izaturik, Anibali deitu zioten laguntza eskatuz, eta horrela Italian inolako borrokaldirik galdu gabe, Kartago alderantz abiatu behar izan genuen Erroma gure eskuetan erori gabe betirako utziz. Laisterka eta presaka abiatu ginen, galtzeko denborarik ez zegoen eta. Laister izan genuen lehenengo eta azken gatazka Zama deituriko zabaldian, eta bertan galdu izan genituen gure ilusioi eta itxaropen guztiak, gure porrota izugarria izan bait zen.

Anibal berak aholkatu egin zion kartagotar gobernuari kondiziorik gabeko errendizioa eskatzea, amore ematea. Eta honela gure aberriak oso kondizio edo baldintzapen latz eta gogorrek jasan behar izan zituen bere bizia salba ahal izateko: kolonia guztiak, Hispania barruan zegoelarik, erromatarrentzat uztea, gudazko materiale guztia eta gure gudaflota, hamar ontzi ezik, irabazleen eskuetara pasatzea, berrogeitahamar urtetan ordaintzeko guda indemnizazio izugarri haundia eta gainera Afrikatik kanpo sekula gerrarik ez egiteko konpromezu zehatza, eta Afrikan bertan egitekotan, Erromak aurretik onartutako baimenarekin.

Honela bukatu ziren gure ametsak, gure askatasunaren aldeko borrokaldia eta honela bilakatu ginen erromatarren menpeko morroi eta zerbitzari. Gaur historia trixte hau idazten dudanean, urte franko pasa dira. Berrogeitahamasei urte Zaman porrot eginda gelditu ginenetik, hain zuzen. Nire burua zuri zuria dago, nire bizkarra makurturik, eta nire eskuetan ia ia ez daukat ezpata altxatzeko indarririk, baina hala ere oroimenak bizi bizirik dirau nire gogoan.

Anibal hilik dago, bere burua pozoinaren bidez akabatu bait zuen Bitinian, erromatarren eskuetan ez erortzeko, eta Kartagok ez du ezer egiteko inolako ahalmenik. Atzo erromatarrek bultzaturik, numidiarren errege den Masinisa ankarra gure mugak gaindituz, gure lurraldeetan barrena sartu zen herioa eta ikara sortaraziz. Erromatarrek

inposatutako legeari jarraituz, ezin diegu beren baimenik gabe, aurre egin, eta bestaldez badakigu ederki asko baimen hori ez zaigula inoiz iritsiko, hauxe bait da gu betirako suntsitzeko erromatarrek urte luze hauetan itxaro izan duten aitzaki merkea.

Gure agintariak batzarrean bilduta daude, eta danok dakigu zein izanen da bertan hartuko den erabakia: armak hartzea, gure aberria defenditzea, Masinisa gure mugatik kanpo bidaltzea, baina denok dakigu baita ere zein izango den ordaindu beharko dugun prezio mingotsa: Kartagoren suntsitzea, gure bukaera,... baina hala ere prest gaude borrokatzeko, gizon-emakume eske bezala hiltzeko pronto. Erromatarrek bukatuko dute gure gorputzekin, baina ezin izango dute inoiz amaitu gure askatasun aldeko sentimenduarekin.

Jaio ginen aske eta aske hilko gara. Sortu ginen kartagotar eta kartagotar akabatuko gaituzte! Lainok emandako zilarrezko euskal lauburuak ondo azaltzen dit bidea: amaiera bait da hasiera, euskaldun sinismenek esaten duten bezala, eta gure amaiera, Kartagoren amaiera,... askatasunaren aldeko etengabeko borrokaren hazia bilakatuko da; gure izate askearen amaiera, izaki aske ugarien hasiera bihurtuko bait da. Gure amaiera besteen hasiera izango da, eta egun zoriontsu batetan, erromatarren amaierak askatasunezko denboraldi luze baten hasiera ekarriko digu!

Anibalen lugartenientea eta askatasunaren aldeko gerlari zaharra naizen ni
XARIT kartagotarra

EGILEA: KARLOX BARRENTSORO
MARRAZKIAK: ANE

